



Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa eta Caja Vital Kutxarekin

EUSKO JAURLARITZAK ETA EUSKADIKO AURREZKI KUTXEK LANKIDETZARAKO HITZARMEN MARKOA SINATU DUTE EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO

Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Aurrezki Kutxek (Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa eta Caja Vital Kutxa) euskararen erabilera sustatzeko lankidetzarako hitzarmen markoa sinatu dute gaur goizean Gasteizen. Miren Azkarate, Kultura sailburuak eta Carlos Etxepare, Kutxako eta Euskadiko Aurrezki-Kutxen Federazioko presidentek “aurrerapauso garrantzitsutzat” jo duten hitzarmenak lau lan-ardatz hauek garatuko ditu: Informazioa eta ezagutza trukatzea; aholkularitza, komunikazioa eta produktu eta zerbitzuen eskaintza; erakunde sinatzaileek elkarlanean egiten dituzten proiektuen azterketa bateratua eta egitasmo partekatuen garapena; eta akordio espezifikokoak gauzatzea Kutxekin, banaka hartuta.

Sailburuak nabarmendu du Eusko Jaurlaritzak “berebiziko garrantzia” ematen diola esparru sozio-ekonomikoan euskararen “erabilera eta presentzia areagotzeari”, eta horretarako, “hainbat urrats” eman dituztela gizarte-eragileen “partaidetza eta inplikazioa lortzeko”. Horren erakusgarri dira, pasa den irailean Euskal Autonomia Erkidegoko enpresarien elkarteekin eta lau sindikatu nagusiekin, sinatutako hitzarmenak, gaineratu du prentsaurrekoan Azkaratek, honako mahaikideak ondoan zituela; Carlos Etxepare Zugasti jauna, Gipuzkoa Donostia Kutxako lehendakaria, Gregorio Rojo García jauna, Caja Vital Kutxako lehendakaria, Guillermo Ibañez Bilbao Bizkaia Kutxaren ordezkaria (Xabier de Irala presidentearen ordezkari) eta Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

Halaber, oroitarazi du Euskalitekin elkarlanean ari direla euskara “kalitatearekin, bikaintasunarekin eta berrikuntzarekin” lotuko duen ziurtagiri ofiziala zabaltzeko. “LanHitz programa ere jarri genuen martxan enpresei euskararen normalizazioan irizpideak, laguntzak eta aholkularitza teknikoak eskaintzeko”.

Hortaz, jarraitu du sailburuak, euskara lan munduan sustatzeko helburuarekin, esandako guztiak barne hartzen dituen plan integral horren baitan, “beste urrats garrantzitsu bat da” gaur EAEko kutxekin sinatu duten akordioa. “Izan ere, euskarak aurrera egin dezan esparru guztietan, bere ustez, ezinbestekoa da alor bakoitzeko gizarte-eragile nagusien inplikazioa, eta horretan ari gara: enpresari elkarteak, sindikatuak eta, orain, kutxak euskararen aldeko hizkuntza politika eraginkorrek garatzeko ahaleginean bidelagun izaten. Horixe baita euskararen garapenerako testuinguru egokia bermatzeko modurik onena: esparruan esparruko eragile nagusiak eta entitate eredugarriak bide-erakusle izatea”.

Alde horretatik, eztabaidaezina da Bilbao Bizkaia Kutxaren, Gipuzkoa Donostia Kutxaren eta Caja Vital Kutxaren garrantzia azpimarratzen duen Azkaratek, zeren, zerbitzu-enpresa diren aldetik, “harreman estua eta etengabekoa dute herritarrekin; presentzia eta pisu ukaezina dute gure gizartean, bai eta bertan diharduen langile-kopuruari erreparatuta ere”.



“Hitzarmen sinatzaile diren hiru kutxek kalitatea eta etengabeko hobekuntza kudeatzeko egunero erakusten duten konpromisoaren barruan, eta bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena emateko egiten duten ahaleginaren baitan ulertzen dute euskara”, esan du sailburuak, zeinaren ustez horregatik hartzen duten euskara “lan eta zerbitzu-hizkuntzatzat”. “Bezeroei produktu eta zerbitzu elebidunak eskaini nahi dizkietelako, erabiltzaile bakoitzak nahi duen hizkuntza hautua egin dezan kutxekiko harremanetan”.

“Horiek horrela izanik, hiru Aurrezki Kutxek, akordio honen bidez, berretsi egiten dute gizartearen arlo sozialean eta ekonomikoan euskararen erabilera arian-arian gehitzeko lanean Eusko Jaurlaritzarekin batera aktiboki inplikatzeko nahia, euskara eta gaztelaniaren arteko berdintasun sozial handiagoa helburu”.

Ezaguna da, bestalde, hiru Aurrezki Kutxek, beren lurraldean sendo errotutako erakundeak diren aldetik, beti agertu izan dutela euskara sustatzeko eta indartzeko borondatea. Eta abagadune hau aprobetxatuz, Eusko Jaurlaritzaren izenean aitortu egin nahi diet gizartearen euskararen erabilera normalizatzeko egin duten eta egiten ari diren ahalegina, bai erakundearen bertan euskararen erabilera areagotzeko plangintzak garatuz, bai euskararen inguruko ekimenak babestuz, eta abar.

Sailburu gisa ezezik, herritar soil moduan ere, eskertu egin nahi izan du hiru Aurrezki Kutxei bezerook aukeratutako hizkuntzan “arreta emateko” egiten ari diren “esfortzuak”. “Eskertu nahi diet, bezero eta erabiltzaileei eskaintzen dieten zerbitzuaren etengabeko hobekuntzan gure hizkuntza aintzat hartzea”. Gaurtik aurrera, esan du ekarpen horiek eta beste batzuk LanHitz programaren barruan egingo dituztela kutxek; “esparru sozioekonomiko pribatuan euskara sustatzeko, herri-administrazioek, enpresari-erakundeek eta sindikatu nagusiek adostutako programaren baitan hain zuzen”.

Euskararen presentzia hobetuz hiru kutxetan

Carlos Etxepare Zugasti Kutxako eta Euskadiko Aurrezki-Kutxen Federazioko presidentek, Eusko Jaurlaritzatik, oro har, eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetatik bereziki, Euskal Herriko jarduera sozial eta ekonomiko desberdinetan euskararen erabilera normalizatzeko egindako lana txalotu ondoren, adierazi du Euskal Herriko errealitate soziolinguistiko desberdina “modu bertsuan islatzen” dela geure hiru euskal aurrezki-kutxetan ere; izan ere –azaldu du- enplegatuen arteko euskaldunen proportzioa “% 75 ingurukoa baita kasurik onenean”, Lurraldeko biztanleen artean dagoen giro euskaldunarekin bat etorritz, “% 30-33ko proportzioetaraino jaitsiz” gainerako lurraldeetan. Hala ere, gaineratu du zifra horiek “etengabe hobetuz” doazela, egunetik egunera “elebitasun-maila handiagoa” duten enplegatu eta langile berrien sarrerak eraginda.

Gaur sinatu akordioaren kariaz, Etxeparek esan du lankidetzeta bateraturako “esparru garrantzitsua” ezartzen duela, bizitza sozial eta ekonomikoan euskararen erabilera pixkanaka eta “modu progresiboan gehitzeko”, lanean modu aktiboan “parte hartzeko dugun borondatea finkatu eta sendotzeko balioko diguna”, bi hizkuntzen artean, euskararen eta gaztelaren artean alegia, erabilera sozialeko berdintasuna izanik betiere “helburu nagusia”.

Era berean, Etxeparek aipatu du Euskal Aurrezki Kutxek euskararen erabileraren eta euskal kulturaren sustapenarekin zuzenean lotuak dauden jarduketak “ugari babestu” izan dituztela, hala



nola, “Klasikoak Fundazioari, Auñamendi entziklopediari, Gure Mendeari, edota bertsoaritzari, oro har, eta euskara sustatzeko jaialdiei emandako laguntza”. Mugarri historiko bezala, duela 60 urtetik jadanik, Euskaltzandiaren literatura-sariei eskainitako “babesa eta laguntza” nabarmendu du. Esan du, baita ere, Gizarte Ekintzaren bidez, sarritan aritu izan direla euskal kulturaren “mezenas edo babesle moduan”, kultura-eremuko ekimen desberdinak “garatzen eta bizkortzen”, era guztietako laguntza eta lankidetzen bidez: “testuak itzuliz, hainbat literatura-sari diruz hornituz, eta une honetan banan-banan aipatzea luzeegi joko lukeen konta ezin ahala ekimen eta jarduera bultzatuz”.

Bere mintzaldia amaitzeko, EAeko Aurrezki-Kutxen Federazioko presidenteak eskerrak eman dizkio Eusko Jaurlaritzari, eta bereziki Kultura Sailburuari, Euskadi lurralde “gero eta elebidunagoa” bilakatzen joateko eginkizun eskerga horretan “gure aletxoak eskaintzeko eta denon indarrak biltzeko eskaini zaigun aukera emateagatik”, euskarak hizkuntza minoritarioa eta irismen laburrekoa izaten jarrai ez dezan, “euskal hitzunen, euskaldunen kopurua areagotuz” eta hizkuntzaren erabilera “geure eguneroko bizimodura zabalduz”.

Hitzarmenaren lan-ardatzak

Gaur hizpide dugun akordioa lau lan-ardatz nagusitan gauzatuko da:

1. Sinatzaileek informazioa eta ezagutza elkarri trukatzeko borondatea agertzen dute honako gaien gainean:
 - Egoera soziolinguistikoaren eta hizkuntza-politikaren inguruko diagnostikoak konpartituko dituzte, etorkizunerako estrategia bateratuak lantzeko.
 - Kutxen jardun-eremuetan euskararen presentzia areagotzeko tresna eta beharrianak identifikatuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin horiek diseinatzeko eta zabaltzeko.
2. Beste lan-ildoak honakoa da: aholkularitza, komunikazioa eta produktu eta zerbitzuen eskaintza. Eusko Jaurlaritzak, LanHitz programaren bidez, esparru sozio-ekonomikoan euskararen integrazioa bultzatzeko aholkularitza orokorra emango die Kutxei, eta tresnak nahiz bestelako baliabideak jarriko dizkie eskura beren euskara-planak eta jarduketak planifika ditzaten.

Halaber, Aurrezki Kutxa sinatzaileetako bakoitzaren ingurumaria kontuan hartuta, ahalik eta produktu eta zerbitzu gehienetan euskararen integrazioa zabaltzeko eta sustatzeko lanean bideratutako jarduketak abian jartzeko lankidetzak bultzatuko da, eta, horrekin batera, bezeroek jarduketa horiek erabil ditzaten ahalegina egingo da, batik bat modu zuzen eta pertsonalizatuan.

3. Erakunde sinatzaileok elkarlaneko proiektuak eta egitasmo partekatuak aztertuko dituzte, egitasmo konpartituak abiatu eta euskararen proiektio sozialean lankide izateari begira.



Azkenik, akordio-marko honen barruan, akordio espezifikoak gauzatu ahal izango dira Kutxekin, banaka hartuta. Aurrezki Kutxek bereizgarritasun propioak dituztenez gero, bakoitzak banakako akordio espezifikoak adostu eta garatu ahal izango ditu Eusko Jaurlaritzarekin.

LanHitz programa: adostasuna eta inplikazioa

Bukatzeko, LanHitz programa ekarri du gogora sailburuak, pasa den urtean hiru foru-aldundiekin, EUDELEkin eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Lan sailekin batera, alor sozio-ekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko martxan jarritako programamarkoa.

Bere irudiz, ekimen integral horretan kokatu beharra dago gaurko hitzarmen hau, enpresariekin eta sindikatuarekin sinatutakoei “segida ematen diena”. Izan ere, LanHitz programak “lan munduko agente naturalen artean adostasuna, konpromisoa eta elkarlana” bilatzen du.

Euskarak lan munduko agente natural guztien “ardura, inplikazioa eta konplizitatea behar” dituela esan du, esparru sozio-ekonomikoan “benetako aurrerapausoak egingo baditugu”. Bere aburuz, finantza-munduan, oraingoan, EAEko hiru Aurrezki Kutxekin (Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa eta Caja Vital Kutxa) sinatu duten hitzarmenak erakusten du, berriro ere, euskarak “elkartzeko eta kohesionatzeko indarra” baduela. Eusko Jaurlaritzak bide horretatik jarraituko du, euskararen normalizazioarako indarrak batzen hain zuzen, amaitu du Azkaratek.